

## HERRI BIZITZA LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2014/11/26

BILERA ZENBAKIA: 10

ORDUA ETA LEKUA: Arratsaldeko 19:00etan

PARTEHARTZAILEAK: 7 emakumezko eta 6 gizonezko.

### EGINDAKO LANAREN LABURPENA

#### LANDUTAKO GAI ORDENA


##### 1. Aurrekontuen lanketa.

Emma Arrondo, udaletxeko diruzainak, diapositiba batzuen bidez, aurrekontuei buruzko aukera ezberdinak erakutsi zizkigun:

- Azkeneko 15 urte hauetan nola banatu izan diren, orduan hartutako erabaki baten irizpideak jarraituz. Hau da, %60a sei taldek jasotzen dute, eta %40a unean uneko ekintzak burutzeko erabiltzen da.
- 1. Proposamen bezala azaldu zigun, 6 talde horien egitasmoak aztertu eta bakoitzaren beharren arabera, diru kopuruak Herri-Bizitzako lan taldeak erabaki.
- 2. Proposamena, talde bakoitzak egindako gastu guztiak justifikatu, eta justifikante horien arabera eman dirulaguntza.

Ondoren, eztabaida izan zen, eta naiz eta erabaki zehatzik ez den hartu, 1. Proposamen bezala azaltzen dudana indarra hartzen joan zen. Garbi gelditu zen, denborarik ez dagoelako 2015 diru-laguntzak orain arte bezala banatuko direla.

Azkenean, hurrengo Herri-Bizitzako bileran jarraituko genuela gai hau jorratzen, hurrengo urteei begira zer irizpide erabili behar dugun erabakitzeko.



ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
<b>HURRENGO BILERA</b>		
<b>Hurrengo bilera, Urtarrilean egingo dugu.</b> Gai ordena: <ol style="list-style-type: none"><li>1. Aurrekontu partehartzaileen lanketarekin jarraitu.</li><li>2. Herri Bizitza lantaldearen betebeharren hausnarketa egin.</li></ol>		